

berezia txintxarri

875. zk. • 2010-07-02 • www.ttakun.com • LASARTE-ORIA



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI



**Matrikula:
uztailaren 7tik 13ra**

**JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!**

**Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK**



Mekanika



Elektrizitatea



Administrazioa



Energia eta ura

Mantenimientua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com



jalgi

KAFE-ANTZOKIA



ONDO IGARO IZANA ESPERO DUGU!



GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024

Maitete



ETELU



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliariako zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



SAN PEDRO JAI ALAITSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!

Aralar plaza 4 eta 6, behea • LASARTE-ORIA •
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117





Eraikin honetako
balkoitik azkeneko
aldiz bota da txupina.
Hurrengo urtean
udaletxe berritik
botako dute.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Ekitaldi ugari motorrak berotzeko

San Pedro jaien giroa somatzen zen ekainaren 25ean. Elkarte ezberdinek, Biyak Bat erretiratuen elkarteak, Erketz EDT eta Emakumeen Zentro Zibikoak ekitaldiak burutu zituzten egun horretan eta jaietako prest egoteko Jalgi kafe-antzokian Lauroba eta Oreindik taldeen kontzertua egon zen.

Biyak Bat elkartean mahai joko eta mugimendu jokoan, zein txiste, kanta eta poema lehiaketetako saribanaketa egin zen.

Musean, Juan Manuel Lopez eta Alberto Calvo; tutean, Laurentino Falcon eta Juan Sanchez; eskoban, Guillermo Rico eta Begoña Alvarez; Manuelo Belartietan; briskan, Begoña Alvarez, Domingo Mecerreyes eta Guillermo Rico; rabinoan, Conchi Alonso; punttoan, Jose Furundarena eta Pedro Irurzun; emakumeen tokan, Adela Manso; gizezkoen tokan, Diego Roman; igel jokoan, Emilio Barcena eta potean, Victor Rodriguez izan dira irabazleak.



Emakumeen Zentro Zibikoak ikasturte amaiera ospatu zuen. Horretarako, merienda eta saxofoi, gitarra eta klarineten emanaldia izan zuten. Bestalde, hasiera eman zitzaion eskolan ikastaroetako erakusketari. Uztailaren 9a arte egongo dira ikusgai, Emakumeen Zentro Zibikoan.



ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Kale Nagusia 34
Tel.: 943 366000 / 943 366084
Faxa: 943 364700
20160 Lasarte-Oria

la Caixa

SAN PEDRO JAI ALAITSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak
- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

ELEKTRIZITATEA ARREGUI

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA





Erketz, Erketz-Txiki eta Erketzen lagunek emanaldi paregabea eskaini zuten. Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Iparraldeko dantzak eskaini zituzten. Kolorea, musika eta mugimendua izan zen nagusi. Kantuarekin ere ausartu ziren hainbat emakume.



Jalgi Kafe-Antzokian jaietako emateko asmoz, herritar ugari bildu zen. Herriko Oreindik taldea eta kide lasarteoriatarra duen Lauroba taldeek ederki berotu zuten jaietako aurreko gaua.

INFORMATIKA
MARTINEZ MULTIMEDIA

SAN PEDRO JAI ALAITSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Ezagutu itzazu gure eskaintzak, beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2, behea • Tel./Faxa: 943 360591
LASARTE-ORIA

ANTONIO URRUZOLA

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

ARROZTEGIA

JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Etor zaitez erakusketa ikustera!

Asteasuain polig., 3. pabilioia
20170 • USURBIL (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943 376415
Mobila 687 845597

ABREU

JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Gettoki 2 • LASARTE-ORIA
Idiazabal kalea 32 • URNIETA
Tel.: 943 365846



Ekainaren 26a

Txisssssss pun! Hasi dira San Pedro jaiak. Jaien lehenengo eguna ekitaldiz betea egon zen. Txupinak, kirola, kantua, dantza, ikuskizunak, kontzertuak eta helduen danborrada.



Kuadrillen arteko futbol txapelketako finalean aritu ziren taldeak. Arg.: J. Zatarain



Herriko kaleetatik barrena ibili ziren kantujiran Xumela koruko kideak.



Mosso Memorialeko finalean Izkiñak ISU garaitu zuen. Arg.: J. Zatarain



Oriako txarangak eta buruhandiek txupina baino lehen festa giroa jarri zuten.



Gogor lehiatu ziren tenis txapelketako finaletan. Arg.: J. Zatarain

A. Arregi

AA

eraikuntzako materiala

ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!

BILTEGI NAGUSIA

Oria etorbidea 6

Tel.: 943 366473

943 370998

ERAKUSKETA

Goikale 2

Tel./Faxa:

943 365947

BERTAKO FABRIKAZIOA

Solomoa baratxuritan-Baserri pateka

Txistorra

Basurde burua

Etxeko txorizoa

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Odolkia- Solomo ontzutua

Tripakiak- Saltxitxak

ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451 • Lasarte-Oria





San Pedro jaiak hasi ziren.- Herritar ugari bildu zen Udaletxe aurrean, jaien hasiera ikusteko. Azken urtea da, balkoi honetatik txupina botako dena. Gazteria eta Festetako zinegotzia den Marisa Zubirik piztu zuen txupina. Lasarte-Oriako bandera igo eta jaien hasiera eman zitzaizen txarangaren doinuekin. Realaren ereserkia jo zuenean, Realaren bandera atera zuten udal ordezkariak goera ospatzeko. Ostean, txaranga, erraldoi eta buruhandiek kalejira egin zuten erdialdeko kaleetatik.



AIZPURUA
Pinturak

JAIETAN ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

- * Pintura plastikoak bereziki.
- * Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan.

Zumaburuko industrialdea
 LASARTE-ORIA
 Tel.: 943 362153

MAYA
 Lentzeria
 Kortse-denda

JAIETAN ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!

Hipodromo etorbidea 8 • Tel.: 943 363665

adats
 ile-apaindegia

ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Geltoki kalea 3
 Mobila: 600 523988
 LASARTE-ORIA



Herritarrek ederki egin zuten barre *Camping Renove* kaleko antzerkiarekin.



Sorgin jaietako lagunek, kuadrillen jaitsera alai eta koloretsua egin zuten.



Herritar ugari bildu ziren Sorgin jaietako txupina ikustera. Miren Artetxeren bertsoak entzun zituzten bertara hurbildu zirenek. Aurtengo txupina 36ko Guda Zibilean hildakoen senideek bota zuten.



Calvako txapelketa egin zen Atsobakarreko zelaian. Arg.: J. Zatarain



Zezen errektadoreak ikusteko aukera ere egon zen. Arg.: J. Zatarain



Moon Space Lunatics-eko astronautek ilargia ekarri zuten herrira.



JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!


ALBOKA



*Gustuko al duzu abestea?
Zatoz gure artera!*

**ABESBATZA
LASARTE-ORIA**

Tel.: 943 365145 / 943 363656 • LASARTE-ORIA





Sorgin Dantza parte hartzailea.- Oriako auzoan hasi eta Kale Nagusian bukatu zen aurten Sorgin Dantza. 240 bat lasarteoriatar izan ziren aurtengo desfilean eta, parte hartze handi hori medio, trafikoko arazoak sortu ziren. Era berean, irteeraren atzerapena ere gaizki ulertuen ondorio bat izan zen. Datorren urterako, irtenbidea bilatuko zaie arazo horiei. Honetaz gain, ezin ahaztu aurten hauren zortzikotearen estreinekoa izan zela. Beroaz ahaztuz, ederki egin zuten dantza gaztetxoek, baita desfilean parte hartu zuten guztiek ere.




Barceló Bidaiak

ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!

Bidaiaritik bidaiarira:
bestek dutena dugu, baina zuretzat
egokitua. Etorri eta frogatu!

Oporretako, ezkontzetako, taldeak, abentura, hegazkinak...

lasarte@barceloviajes.com







Pregoiarekin eman zitzaion amaiera Sorgin Dantzari Kale Nagusian. Zortzikoteko gaztetxoek hil berri den Xabier Bardajiri Sorgin Dantzaren laguna ekarri zuten gogora.



Sorgin Jaietako gazte olimpiadetan, Gabiri eta Lizarra ziren gonbidatuak. Gabirikoek gainera euskal dantza saioa eskaini zuten.



Biyak Bat elkarteko abesbatzak Brigitarren komentuko kapera musikaz bete zuten.



Bapo afaldu zuten berrehun bat herritarrek txosna gunean Ttakunek antolatutako zikiro afarian.



Nexo orkestrak eman zien hasiera Isla plazan burutuko ziren dantzakiei.

Kale Nagusia 21
Tel.: 943 362073

**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Euskadiko Kutxa





Ttakunek antolatuta, zikiro afariaz gozatu eta gero, gorputza mugitzeko ordua iritsi zen *Laiotz* taldearen eskutik. Gazteek ederki dantzatu eta gozatu zuten zuten erromeriarekin.



Arg.: J. Zatarain



Arg.: J. Zatarain



Arg.: J. Zatarain

Aurtengo omenduak Brigitar mojak zirela kontuan izanik, helduen danborrada komentuan hasi zen. Danborjoleen artean, jalguneko Oskarrek ederki gozatu zuen, lehenengo aldiz hartu baitzuen parte helduen danborradan. Urtero legez, udal ordezkariak Udaleko balkoian danborradarekin bat egin zuten.



Hondarribitik etorritako taldeak ere txosnak girotu zituen goizaldera arte.



Andatza plazan berriz, herritar ugari bildu zen OBK taldearen kontzertua ikustera.

kima
masaje-lekua

JAI ALAIAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

**Goyo Martin
Xabier Carbayeda**

**Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197
LASARTE-ORIA**

**ARROPADENDA
ETA
OSAGARRIAK**

JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Nagusia 44 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 245760

**ALAMANDEGI
TABERNA - JATETXEA**

**SAN PEDRO
JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!**

**Tel.: 943 362849
ZUBIETA (Gipuzkoa)**

Ekainaren 27a

Igandean, umeen danborrada izan zen ekitaldi nagusietako bat. Bestalde, Sorgin Jainen gunean iluntzean egin zen erromerian sorgin jaien abesti berria aurkeztu zuen Trikihotsek, Lasarte-Oriako taldeak.



Arg: J. Zatarain



Haurren danborrada igandean goizeko 11:30ean atera eta Oriako Txarangak lagunduta ibili zen herrian barrena. Ikusle ugari bildu zen kale bazterretan danborrada ikusteko. Arg: J. Zatarain/A. Ramos



Aurten gaztetxoek Paintball-ean jokatzeko aukera izan zuten Atsobakar parkean.



Haurrak txirringa lasterketan Atsobakarreko Ziklo Kros pistan,

Arg: J. Zatarain

SOCIEDAD CULTURAL
DEPORTIVA RECREATIVA

UDABERRI elkartea

**SAN PEDRO JAI ALAIAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**

**Andatza plaza z/g, behea
Tel.: 943 371983
LASARTE-ORIA**





Mariatxiek kalejira egin zuten arratsaldean eta 20:00etan euren ikuskizuna eskaini Andatza plazan. Arg:A. Ramos



Entre Mujeres antzezlana eskaini zuten Kultur Etxean EPA-HHko kideek.



Oriako Txaranga erraldoi eta buruhandiekin batera ibili zen igande arratsaldean herriko kaleetan.



Goian La Fania orkestra Isla Plazan. Behean Desaster 92 Andatzen.



Arg:A. Ramos



Landaberri Antzerki eta Dantza Eskolako dantzari gazteek dantza egin zuten Maider Oiartzabalek zuzenduta Sorgin Jain Gunean eta herriko kaleetara ere eraman zuten euren ikuskizuna.



MINHOTA TABERNA

**Razioak
Pintxoak**

...
Ètorri dastatzera !

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

**ONDO
IGARO IZANA
ESPERO DUGU !**







Igande eguerdian Zo Zongo taldekoen burrunbak esnatu zituen oraindik lotan zeudenak. Ikuskizun bikaina eskaini zuten erdialdeko kaleetan.

Arg.:A. Ramos



Arg.: A. Ramos



Arg.: A. Ramos

Hitzartu eta Trikihots herriko taldeekin erromeria izan zen iluntzean. Hauek Sorgin Jaietako abesti berria aurkeztu zuten zuzenean. Letra Ane Labakarena da eta berak abestu zuen Sorgin Jaien Gunean.



Trikihots taldeak dantzan jarri zituen igande arratseko erromeriari bildutakoak

Arg.:A. Ramos



Gauean, Damba eta Emon taldeekin kontzertua izan zen. Irudian Damba taldekoak.





Urtero bezala, giro bikaina izan zen Michelinen Iturberen omenezko bolo eta toka txapelketan. Argazkian Iturbe sendia aurtengo txapelketako irabazle eta sarituekin.



Bolo eta tokan emakume bana izan zen. Bolotan, Charon Galan aritu zen.

Inaxio Otaegi bikain bolo sariketan.- Iturberen omenezko XXI. Bolo eta Toka Txapelketan giro bikaina izan zen eta maila oso onean aritu zen gainera Inaxio Otaegi lasarteoriatarra. 25 lagunek hartu zuten parte eta Vicente Gerra irabazleak baino birla bat gutxiago botata hirugarren izan zen. Gerra zeraindarrak 37 bota zituen, eta lau ondorengoek 36. Berdinketa hausteko jokaldiaren ondoren, bigarren Belaunzaran izan zen, hirugarren Otaegi, laugarren Goenaga eta bosgarren Miner. Herrikoen sariketan Otaegiren atzetik ere berdinketa egon zen 33 birlarekin; bigarren eta hirugarren Arroyo aita semeak izan ziren eta laugarren Lasa izan zen. Tokan, Eduardo Alvarez izan zen irabazle 17rekin eta herriko sariketan, Iñaki Salsamendi nagusi (12), eta Prudencio Olano bigarren (11). Hirugarren eta laugarren tokian 9rekin berdinduta Iturbe omenduaren sendiko Rafa Perez eta Joxeba Iturbe kokatu ziren. •



Igande arratsaldean, Zabaletako aldapa jendez bete zen, goitibeherekin.

Arg.: B. Bergara



Burgor Tools, S.L.   

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

San Marcial plaza 1, behea • Tel.: 943 364070
Faxa: 943 363333 • burgor@burgor.com

INTZA ELKARTEA



SAN PEDRO JAI ALAIAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Sagardotegi kalea • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361534

Garcia

AUTOBUSAK

• Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak.

- Bestelako zerbitzuak.

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!


Nafarroa etorbidea 32-2.A (Leku Eder etxea)
Tel.: 943 372737
20800 ZARAUTZ

Ekainaren 28a

Asteburu mugitua igaro eta gero, energiak eta gogoak ez ziren falta San Pedro eguneko bezperan. Goiz goizetik, eta gaueko ordu txikiak bitartean, ez zen girorik falta herriko txoko ezberdinetan. Kirola, bazkaria, pailazoak eta nola ez, musika. Erritmo ezberdinen laguntzaz askok gorputzak astindu zituzten egunean zehar.



Giro ederra eta kiroltasuna nagusi trinketeen ospatutako eskuzko pilotako txapelketen finalean. Zorionak irabazleei!



Bolotan aritzen erakutsi zieten herriko gaztekoenei Micheleningo Kirol gunean.



Toka ere hurbiletik ezagutu zuten etxeko gaztekoenak. Ederki pasa zuten!



Gosea egiteko, kalejiran ibili ziren herriko gazteak.



Eguzkitik babestuta, makarronada goxua Atsobakarren.



Beroa ekiditeko, ur jolasak egitea hoberena.



ANAIAK

JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN !

SAN PEDRO JAIALAIAR
IGARO IZANA
ESPERO DUGU !



Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386





Sorgin Jainen Gunea umez gainezka aurkitu genuen Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazozen emanaldiaz gozatzeko irrikitan. Algarak eta irribarreak nagusi izan ziren emanaldi osoan zehar.



Amalurreko kalejiran hurbildu ziren Sorgin Jainen gunera eta pailazozen ekitaldian parte hartu zuten.



Arratsaldeko beroari aurre egiteko modu bikaina; Oriako jaitsiera.

Arg.: J. Zatarain



Danborrak ederki astindu zituzten herriko danborjole gazteenek.

Arg.: A. Ramos.

TIRIKITRAUKI
MUTIKA BENDA

zero sette

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Trikitixa eta esku-soinuetan aukera zabala: Berriak, 2. eskukoak eta alokairuan.

Oria etorbidea 10, 303. bulegoa • 20160 Lasarte-Oria • Gipuzkoa
Tel.: 943 372817 • www.tirikitrauki.com • tirikitrauki@tirikitrauki.com

JM

ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!

JOKAR Y MARKINA ITURGINTZA

OLA KALEA 12 • TEL.: 943 363932 • LASARTE-ORIA





Zaldi ikuskizun paregabea eduki genuen Atsobakarren.



Ezohiko bertso saioa herriko txosnetan ospatutakoa. Animala exotikoen laguntzaz aritu ziren bertsolariak.



Irrifarreari ezin eutsi Javier Segarraren emanaldian.



Nuevo Talisman orkestrak gaua ederki girotu zuen Isla plazan.



ABIBAK herria dantzan jarri zuen erritmo ezberdinekin.



Sorkunek kontzertu ederra eskaini zuen, eta bertaratutak ederki disfrutatu zuten.



Gaueko ordu txikietan herritarrek abeslari bihurtu ziren Sorgin Jaietako guneko karaokean.

M. Berasategi

Kafeak

JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Beti dago aukera kafe on bat hartzeko

INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Edozein orduan

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316 LASARTE-ORIA



Alustiza Autobusak

Alustiza Bidaiak, S.L.

Palazio etxea, Laurgain auzoa • AIA
Tel.: 943 132893 / 830808
Mobila: 656 782999



**SAN PEDRO JAI ALAITSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**



JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.

eraikuntzak



**JAI ALAIAK PASA IZANA
ESPERO DUGU!**

- Igeltseritza orokorreen
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak



Obaba Kalea 29 • Asteasu • Tel./Faxa: 943 696 852 • Mobila: 620 800186



**OSO ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU!**



Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 362467 Faxa: 943 372794 • Lasarte-Oria
E-maila: muebleszubi@hotmail.com

Gozeko Sak arte irekita!



ABEND

KAFE-ANTZOKIA

**JAI ALAIAK PASA IZANA
ESPERO DUGU!**

**EGUNEKO MENTUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK**

Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA



Ekainaren 29a

San Pedro eguna bero hasi eta
bero bukatu zen. Goizetik
herriko patroiairen egun handiaz
gozatzeko ekitaldi ugari izan
ziren. Eta besteak beste, moja
Brigiten omenaldi eguna
izan zen.



Arg.: DYA



Gaupaseroek edo herritar goiztiarrek San Pedro eguneko bigantzetaz disfrutatuta zuten. Gero herritar ugari bildu zen Brigitarren omenezko mezan.



Jende asko bildu zen aurtengo San Pedroetako omenduei harrera egiteko. Ondoren, Sendokik eta Udalak omentzeko ekitaldia ospatu zuten Udal batzar aretoan Brigitar mojekin batera.



Kontent eta irrifartsu agertu ziren Brigitarrak omenaldiko ekitaldi guztietan.



Eguzkiak gogor jo arren, ikuskizun polita eskaini zuten herri-kirol jaialdian.

SAN PEDRO JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

MADD MEIER

KARROZERIAK

ORDEZKO IBILGAILUA
Bankada elektronikoa - Kabina labeduna
Informatizatutako kolorimetria

Certified **KIDEA**

Oria etorbidea 10 - Brunet pol., 20-21
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 360 617 - Faxes: 943 366 038
maddmsl@iservicesmail.com

Aseguru konpainia guztiekin baimendutako zerbitzua

EVGI

IMPRESION DIGITAL

BIZKER

IMPRESION DIGITAL

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

- Inprimategi digitala
Txartelak, Fakturak, Albaranak, Zozketa-txartelak, Kartelak, Katalogoak etab.
- Formatu handiko kartelak eta Argazkiak
Standak, Erakusketa azokak, Ekitaldiak
- Kanpoko eta barruko errotulazioa
Furgonetak, Kamioliak, Toldoak, Saltokiak, Museok...

Geltoki Kalea, 9 - Tel.: 943 36 20 61 - Lasarte-Oria

LAGUNAK

ELEKTROIZATE DEBIDA

JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!

Etxebizitzetako
komertzioetako...
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Geltoki kalea 6, behea
Tel.: 943 371077
LASARTE-ORIA





Sindikatuak deitutako greba egunean manifestazioa burutu zen arratsaldez Lasarte-Orian.



Grebarekin bat eginez, Sorgin Jaien guneko txosnak itxirik egon ziren goizean.



Jende ugari bildu zen Ttakunek eskainitako sagardoa dastatzeko, Aterpeak emandako sardinak jateko eta Amalur taldearekin musikaz gozatzeko.



Arg.: Lasarte-Oriako Udala



The Bucket Beans in Tomato Sauce Brothers talde madrildarrak Lasarte-Oriako III. Maketa Lehiaketako saria hartu zuen J. Zaballo alkateren eskutik. Beranduago kontzertua eskaini zuen Isla plazan.

UDA BERRI
Taberna

SAN PEDRO JAIOGNAR
BASAIZANA
ESPERO DUGU!

Golf plaza 7, behea
Tel.: 943 370410
20160 LASARTE-ORIA

USURBIL
Garaiea

KONPONKETAKO
TAILERRA

FIRT
LANCIA
SERVICIO

Zumaburu aparkalekua 18
Tel.: 943 362463 • Faxa: 943 360360
talleresusurbiladm@hotmail.com

JAIETAN
ONDO IBILI
IZANA
ESPERO
DUGU!

SEMBLANTE ANDALUZ

GURE ROCIOKO
AMA BIRJINAREN
ERMANDADEAREKIN
BATERA
SAN PEDROKO
JAI ZORIONTSUAK
IGARO IZANA ESPERO DUGU.

Golf plaza 2
Lasarte-Oria
Tel.: 943 363699

Gabirondo

ALTZARIAK

ONDO PASA IZANA ESPERO DUGUI

Jaizkibel plaza 2-14 • Tel.: 943 364007 • LASARTE-ORIA



SAN JOSE-OLAIZ

MEKANIKAKO TAILERRA

• Kamioien txasia
konpontzeko oinarria.

• Aluminiozko eta burdinazko
soldadurak.

• Industriako ibilgailuen konponketa.

ONDO PASA IZANA ESPERO DUGUI

Ordutegia: 8:30 - 20:30



DIMETAL S.A.

IVECO

ZERBITZU OFIZIALA



LOMBARDINI

Zirkuitu ibilbidea 6
20160 LASARTE-ORIA

Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508

Jalgune



Elkartea

JALGUNEKO LAGUNOK
JAIAK ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU!



Erribera kalea 1, behea • LASARTE-ORIA



Maketa lehiaketan Lasarte-Oria Sariaren irabazle Arramazka taldeak, kontzertu eta ikuskizun polita eskaini zuen. Landaberri Antzerki eta Dantza eskolako gaztetxoak Panoptikoa abestia dantzatzera atera ziren.



Kartazaleek ere San Pedro egunean bere tartera izan zuten, mus txapelketa lehiatuan.

Arg.: A. Illaramendi



Berto saio ederra antolatut zuten Ttakunek Manuel Lekuona kultur etxean. Irudian Ane Labaka lasarteoriatarra.



Herriko zeruan soinua eta kolorea nagusi izan ziren nagusi gauean Zaragozana Pirokteniaren eskutik.





Jaiei amaiera emateko, Andatzan *Fabulosa* orkestra eta Sorgin Jainen gunean bertsiotzen gaua. Adin guztiarentzako plana.



San Pedro eguna agurtzeko zeren suzkoaren entzierroa egin zen Kale Nagusian.



San Pedro eguneko gauerdian juerarako gogoak zituen jendea ere bazegoen, *Mania Percutoria* adibidez.



LIZARRI OPTIKA

ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Hipodromo etorbidea 8
(Anbulatoriaren aurrean)
Tel.: 943 366482
LASARTE-ORIA





**Gas-instalazioak,
berokuntza eta iturgintza**

**ONDO IBILI IZANA
ESPERO DUGU!**



Ordutegia
9:00 - 13:00
16:00 - 20:00

**Kale Nagusia 69, behea • Tel: 943 360165
LASARTE-ORIA**

BURUNTZ-AZPI

Arrantza eta ehiza elkarteak



**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**



**BASAUNDI BAILARA 9
TEL.: 943 370685
LASARTE-ORIA**

Udala pozik Sanpedroen amaieran

■ Sanpedro jaietan izan den jendetza nabarmendu du alkatetzak ■ Ontzat jotzen du festatako ekitaldiak batez ere asteburuan jartzea ■ Zoritxarreko gertakaririk ez da izan

Aurtengo sanpedro jaiak ontzat jo ditu Lasarte-Oriako Udalak. Jesus Maria Zaballos alkateak positiboki baloratu ditu eta ekitaldi guztietan izan den parte hartze handia nabarmendu du. Sanpedroak asteburuan egiteko erabakiarekin erabat asmatu dutela adieraztearekin batera, egun hauetan ezusteko tamalgarririk ez dela izan goraipatu du.

TXINTXARRI

Behin 2010ko sanpedroak amaituta, ohar bat kaleratu du Lasarte-Oriako alkatetzak, jaien inguruko "balorazio positiboa" jakinarazteko: "Prestatu ditugun ekintza eta ekitaldi guztietan parte hartzaile ugari bildu dira eta horregatik lasarteoriatar guztiei nire eskerrik beroena helarazi nahi diet. Hau horrela, aitortu beharra daukat jaiak asteburuarekin bat egiteko data aldaketa onuragarri eta arrakastatsua izan dela" adierazi du Jesus Maria Zaballosek zuzentzen duen Udalak.

Egitarauko ekitaldiak ahalik eta gehiena zaindu dituztela adierazi du Alkatetzak, "krisi ekonomikoa dela eta bizi dugun egoeraren ondorioz, nahi beste berritzerik izan ez badugu ere, egindakoa mimatzen saiatu gara. Horrela, helduen danborrada larunbatean jartzea erabaki genuen, ahalik eta herritar gehienek parte hartzeko aukera izan zezaten. Era berean, umeen danborrada igande goizera aldatzea erabaki



Brigitarrei egin zitzaizen omenaldiarekin batera, Sanpedroak arazorik gabe eta parte hartze handiarekin burutu direla nabarmendu du alkatetzak balorazioan.

genuen arrazoi berdinarengatik eta bero aurreikuspenenaren aurrean, haurrak ahalik eta erosen izan zitezen ere bai".

Bestalde, alkateak goraipatu egin du "Lasarte Oriako herriak Brigitar Ama Agurgarrirei egin dien omenaldia eta aitortza".

Langileei eskerrak

Era berean, batetik langileen ahalegina azpimarratu du Zaballosek, "bizitasun handiko egun hauetan langileek egindako zeregin eta ahalegina eskertu gabe ez dut utzi nahi" adierazi du eta herritarrek ere zoriondu ditu ez delako zoritxarreko gertakaririk izan: "Hiritarrei ere eskerak, sanpedroetan ez delako ezustekorik izan. Honen hari-



ra, lerro hauek baliatu nahi ditut, Andoaingo patrioiaren festatan bertako neska gazte batek jasandako eraso gaitzesteko eta aldi berean, biktimaren sendiari elkartasuna adierazteko ere bai".

Barkamenak

Era berean, jaiak egun hauetan ezbehar edo eragozpenen bat sortarazi dien pertsona guztiei barkamenak eskatuz eta hurrengo urteko sanpedroak aurtengoak bezain onak edo hobek izan daitezela opatuz bukatzen du alkatetzak jaien balorapena: "Jada prestatzen ari garen 2011ko sanpedroak aurtengoen berdina edo oraindik hobek izango direla espero dut" dio bukatzeko Jesus Maria Zaballos alkateak. •

DANI karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

• Kabina labeduna
• Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
• Tapizatuen garbiketa

ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Zirkuitu ibilbidea 12
20160 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 371440
Mobila: 608 391885
carroceriasdani@lditel.com

JAIETAN ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Bizikleten salmenta eta konponketa

MKL txirrindak

Geltoki kalea 25, atzealdea tel 943 36 16 14
Lasarte Oriá 20160

INSAUSTI

Taberna

ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!

Geltoki kalea 6 • Tel.: 943 361151
LASARTE-ORIA



Alkateak ikurrina jartzea eragotzi zuen

■ Jesus Zaballosen jarrera salatu du Ezker Abertzaleak ■ Sorgin jaiak baztertzeko helburuak huts egin diola uste du ■ 30.000 euro erabili dira orkesta eta DJetan

Ezker Abertzaleko, Joxe Goikoetxea, Itziar Iarza eta Txanpi Baztarrika zinegotziek gogor salatu dute San Pedro jaietan Jesus Maria Zaballos alkateak izan duen jarrera, batetik ez duelako balkoian ikurrina jartzen utzi, bestetik Sorgin Jaiak zokoratu nahi izan dituelako eta azkenik egitarau ofizialean euskarak ez duelako ia tokirik izan. Hiru zinegotziek salatu dute alkatea "enfrentamendu bide bat bilatu nahian" ibili dela.

JON ALTUNA

Jesus Mari Zaballos alkateak San Pedro jaietako txupinazoaren ondoren Udaletxeko balkoian ikurrina jartzeko baimenik ez zien eman ezker abertzaleko zinegotzietan hauek salatu dutenez: "euskal herritarrok dugun sinbolorik preziatuena jartzeari uko egin dio eta ez hori bakarrik, bere alkate karguaz baliatuz, prepotentzi eta harrokeriaz "aquí mando yo" lehor eta inposatzaile bat esan digu, Urchueguia andrearen urte ilunak gogoratu. Inposaketarik ez dizugu onartuko, guk arrazoiak behar eta eskatzen dizkizugu" esaten diote salaketa alkateari

Udaletxeko balkoian ikurrina jartzerik izan ez zuten Sorgin Jaien Gunean jarri zuten larunbat eguerdian bertan Sorgin Jaien txupinazoa baino lehen.

Hain juxtu, alkateari Sorgin Jaiak baztertzeko asmoa zuela leporatzen diote, bestalde, baina "estrategiak" huts egin diola uste dute ezker abertzaleko zinegotzietan: "Sorgin Jaiak taldeak partida irabazi dizu. Zure strategiaren barruan, talde hau herriko bazter batean zokoratzea zen helburua, eta ez duzu lortu. Inork baino hobeto dakizu, Zaballos jauna, talde hau egiten ari den lana oso ona dela (hauek bai jai partehartzai-

leak), eta pixkanaka pixkanaka programa ofizialari gaina hartzen ari zaiola eta hori ezin duzue jasan, ez zuk eta ez herri honetako askok".

Ezker abertzaleko zinegotzietan uste dute alkateak derrihortuta azken momentuan "atzera egin" eta posible izan dela festa gunea frontoi berriaren aurrean jartzea. Aldiz, Sorgin Jaiak antolatutako zinegotzietan zorian egin dituzte zinegotzietan, "bide batez sorgin guztioi zorionak, egin duzuen lanagatik" diote salaketan.

Enfrentamendu bila

Ezker abertzaleko hiru zinegotzietan ustez, "Zaballos jauna aurtengo festetan enfrentamendu bide bat bilatu nahian" ibili da "festak lehertzeko" helburuarekin eta ikurrina jartze- ra joan zirenean batzar aretoan zerbait gertatu ote zen galdetzen diote. "Badira hiru urte gure karguen jabe egin ginela eta Urchuegia andreari garbi esan genion, ez gentoze- la liskar eta enfrentamendu bila, gu lanera gentoze- la, eta zuri ere berdin diotsugu: ez zaitez gu zirikatzen hasi edo ibili, bide horretan ez gaituzu aurkituko eta".

Bestalde, zinegotzietan alkatearen hipokresia salatzen dute ikurrina ez baina errealean bandera jarri duelako balkoian: "guk ikurrina maite eta nahi dugu gure udaleko balkoian, eta hori lortzeko ahalegin guz-



Lasarte-Oriako Udaleko balkoian jarri ez zenez, Udaleko ikurrina Sorgin Jaien gunean egon da San Pedro jai hauetan.

tiak egingo ditugu" diote eta itxurakeria-folklorismoak alde batetara uzteko eskatzen diote. "Gure herria oso plurala da (erreal zaleak, barça zaleak, madrid zaleak, athleti zaleak,...) mota askotako zaleak gaude, eta orduan zergatik errealearen bandera udaleko balkoian eta ez ikurrina?"

Euskara bazterturik

Euskarak aurtengo San Pedro jaietan izan duen tokia ere salatzen dute hiru zinegotzietan: "programa ofizialean euskararen presentzia hutsaren hurrengoa izan da". Adibide batzuek ere aipatzen dituzte salaketaren oinarri gisa: Gauetako musika taldeetan 30.000 euro gastatu dira, baina ez da euskal talderik izan eta aldiz, bertso saio,

Sorgin Dantza, Ttakunen egitaraua, Amalur taldea... hau da, euskara edo euskal kulturarekin lotutako ekitaldi guztietan, 4.773 euro.

Ana Urchuegiaren hitz batzuk gogoratu, eta berdin pentsatzen diote duen galde- tzen diote Jesus Maria Zaballos alkateari. "Udaletik esfortzu handia egiten ari gara gure udalerraren esparru guztietan euskararen erabilera eta garapena posible egiteko, baina bakoitzaren konpromiso- rik gabe arrakasta gutxituko litzateke". Aurreko alkateak azken Euskararen Maratoiaren hasierako hitzaldian esandako hitzak dira.

Joxe Goikoetxea, Itziar Iarza eta Txanpi Baztarrikak azpimarratzen dute "euskarak bitarte ekonomiko eta mate-

rialak behar dituela, baina ez hori bakarrik. Sinesgarritasuna, konplizitate, gestoak... ere behar ditu, eta zuri-zuei hori dena falta zaizue, hitz polit asko eta folklorismo gehiegi. Lasarte-Orian jende asko dabil lanean eta lanera- ko irrikaz eta gogoz. Lana, konpromisoa, sinesgarritasuna... elikatu-goxatu egin behar dira, baina, bai lehen, eta baita orain ere, herri honetako agintarientzako (zuzentzeko Zaballos jauna) beste mundu bateko hitzak dirudite".

Lasarteoriatar askok egune- ro eta naturaltasun osoz euskaraz bizi nahi duenez, zinegotzi abertzaleek herriko agintariei eskatzen diete dagozken alorretan hori ziur- tatu dezatela. •



ARRIESKALLETA ELKARTEA

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Kale Nagusia 10 behea
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943-249305



Irakurleen argazkiak

Urtero bezala, hainbat irakurlek San Pedro jaietan beraiek ateratako argazkiak ekarri dizkigute. Hurrengo orritan ekarritakoaren lagin bat duzue, izan ere, bidalitako guztiak ezin izan ditugu jarri. Ea datorren urtean gehiago animatzen zareten, eskerrik asko!



Igande goiz ederra igaro zuten etxeko gazteenek.

Arg.: Loli Razkin



Sorgin dantzarako dotore-dotore jarri zen emakume kuadrilla hau.

Arg.: Loli Razkin



Umeak pozik ikusi genituen Sorgin Jaiek antolatutako danborradan, danborrari gogor emanez.

Arg.: Loli Razkin




Parrandan ibiltzeko oso garrantzitsua da ondo elikatzea.

Arg.: Bego Bergara



Lasarte-Oriako Udalak San Pedro jai zoriontsuak pasa izana espero du.





Jaiak aproposak dira kuadrillak elkartzeko, afari goxoaz disfrutatzeko eta elkarrekin ondo pasatzeko. Arg.: Loli Razkin



Eguraldi beroa izan zuten Oriaren jaitsieran parte hartutakoek. Ederki etorri zitzaizen bainua. Arg.: Javier Zatarain



Hainbeste parranda artean ahotsa mantentzea lortu zuten kantujirako kideek. Arg.: Bego Bergara



Abiadura hartu eta Zabaletako aldatatik behera abiatu ziren edozein motatako goitibeherak. Arg.: Bego Bergara

LASARTE
AUTOESKOLA
 ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!
 Kale Nagusia 5 (tarteko solairua) • Tel.: 943 370692 • Lasarte-Oria

P
PESCANORTE S.A.
 Mokadu goxoen txokoa duzue gurea!
 OSGO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!
 LEIZOTZ poligonoa, D partzela Andoain-Urnieta errepidean
ANDOAIN (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 304300
 Faxa: 943 304218
 e-maila: pescanorte@euskalnet.net

Saustatxo
Kultur Elkartea
 JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!
 Uzturre plaza 8
 Tel.: 943 364942
 20160 LASARTE-ORIA



patrizio
SAN PEDRO JAI ONAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!
Uistin Kalea 1
Lasarte-Oria

AISNORSA



- Beroaren isolazioa txapan, aluminioan...
- Sabaiko eta makinaren saletako intsonorizazioa
- Airearen kanalizazioa txapan eta climaverrean
- PLADURREZKO tabikeak
- Tabernetako intsonorizazioa

ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Oria etorbidea 8-10, 41 pabiloia
Tel.: 943 366279 • Faxa: 943 372717
LASARTE-ORIA



Gazteen zortzikotea izan zen aurtengo nobedadea Sorgin dantzan, eta eurentzako pregoilari lanak Arg.: Bego Bergara




Energiak berreskuratzeko parada ezin hobea egin zuten lagun hauek, otartekoa eta deskantsatzeko aulkia. Arg.: Loli Razkin

LASARTEARRA KIROL ETA KULTUR ELKARTEA



JAI ONAK PASA IZANA
ESPERO DUGU!



Erribera kalea 10, atzealdea • Tel.: 943 362997
LASARTE-ORIA



Beroa egin arren, tabernak gainezka egin ziren sanpedrotan. Hemen Jalgik utzitako irudia.

Arg.: Alex Ramos



Adin tarte zabaleko ikusleak izan ziren OBK taldeko kideek eskainitako kontzertuan.

Arg.: Javier Zatarain





Bertsio gaua animatua izan zen. Sanpedroak ahalik eta gehien luzatzen saiatu ziren herriko gazteak. Arg.: lone eta Ramon

Dantzari trebeak zirela erakutsi zuten zortzikoteko gaztetxoek. Arg.: B. Bergara

JUAN IRAOLA & HIJOS S.L.

ITURGINTZA



**SAN PEDRO
JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!**



**ETORRI
GURE DENDA BERRIA
IKUSTERA**



AIRE GIROTUA

CASA



ITURGINTZA

BEROKUNTZA

Iñigo de Loiola Kalea 8 behea • administracion@iraola.eu • Tel.: 943 36 0 500 // 652 774679





Euskarazko filmak ikusgai datorren astean

Aurtengo udarak zinea dakarkigu. Krisia zela eta iaz ezin izan genuen eskaini filmarik kalean. Aurtun krisiaren arazoa ez da konpondu baina bitzta handia da eta misteriosua... horregatik aurtun Josu Martinez zuzendari euskaldunaren bi dokumental ikusteko aukera izango dugu uztailan kulturetxean.

Gainera, proiektio egunetan zuzendaria eta hainbat protagonista izango ditugu gurekin.

Zineman ikusiko gara!

OKENDO ZINEMA TALDEA

UZTAILAREN 6AN ETA 8AN
KULTURETXEAN
21:30EAN, DOAN

Asteartea, 6

Zinea

SAGARRAREN DENBORA, *Alfonso Etxegarai eta Kristiane Etxaluz: 25 urte deserritik itzultzen* filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

Doan. EUSKARAZ.



FITXA TEKNIKOA

Zuzendaria: Josu Martinez eta Txaber Larreategi

Urtea: 2010

Sinopsia: Kristiane Etxaluz xiberotarra eta Alfonso Etxegarai bizkaitarra ezohiko bikotea dira. Biak gaztetik lotuak Euskal Herriaren askapenerako borrokari, beren maitasuna sorterritik 7.000 km-tara bitzitera kondenatuta daude, Alfonso Afrikako irla ttipi batean baitaukate aspaldi, deportaturik. Baina erbesteak erbeste, Bidasoaren Herrian daukate biek begiak eta sagarren denboran bihotzak; Oraindik iristear den sagarren denbora emankorrean.

Osteguna, 8

Zinea

ITSASOAREN ALABA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

Doan. EUSKARAZ.



FITXA TEKNIKOA

Zuzendaria: Josu Martinez

Urtea: 2009

Sinopsia: Haizek bi urte bete baino lehen GAL taldeak haren aita hil zuen, Mikel Goikoetxea "Txapela" errefuxiatua. Aitaren oroitzen txikiena ez badu ere, 25 urte geroago neska galdezka hasiko da. Itsasoaren alaba memoria ariketa baten lekukotza da. Goikoetxea ezagutu zutenen testigantzak lotuta, Haizek aita eta garai hartako egoera nolakoak ziren jakingo du pixkanaka, mundu eta sentsazio ezberdinak nahastuta, eta ikuslea sustraie-tarako bidaia errepikaezin horren lekuko bilakatu.

Oharrak

Udako klaseetan izena ematea

Zitek Akademiak jakin arazten du, uztailak 5an, udako klaseak hasten direla. Izena ematea astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era egin daiteke. Baina, San Pedro jaiak direla eta, ekainearren 28, 29 eta 30 akademia itxia egongo da.

Mendigorriara doazenentzako oharra

Bizikletak uztailaren 2an, 16:00etan Hipodromoaren ondoko aparkalekura eraman behar dira. Zalantzarik izanez gero, 943 371448 telefonora deitu.

Usurbilgo Lanbide eskola

Usurbilgo Lanbide Eskolan matrikula egiteko epea ireki dutela jakinarazi dute. Interesa duen orok matrikula uztailaren 7tik 13ra bitartean egin dezake.

Konpostaje ikastaroa Zabaleta auzoan

Datorren asteazkenean, uztailaren 7an, Imanol Azpiz San Markos mankomunitate-

ko presidente ordeak konpostajeari buruzko ikastaroa emango du arratsaldeko 19:30etan Zabaleta auzoan.

Lasarte-Usurbil BHIko matrikulazio epea

Lasarte-Usurbil BHIko matrikula epea uztailaren 1etik 6ra izango dela, 9:00etatik 14:00etara, DBH eta Batxilergoko ikasle guztientzat.

Sorgin Jaien guneko zozketak

Sorgin Jaien gunean, aurtengo San Pedroetan hainbat afarien zozketak egin ziren. Sari-tutako zenbakiak honakoak dira: Martin Berasategin afaria 0934 zenbakia; Txartelen 0980 eta Goiegin 1068.

Goiegi Ibarreko zozketarako eskaerak

Datorren uztailaren 6an etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan izena emateko epea amaitzen da, Goiegiko Ibarra promozioeko zozketan parte hartze aldera. Hau da, aipatutako zozketan sartuko dira martxoaren 15aren eta uztailaren 6aren artean izena

eman duten pertsona guztiek.

Hala ere, erregistroak zabalik jarraituko du eskaera gehiago egiteko eta, modu horretan, uztailaren 6tik aurrera jasotzen direnak hurrengo promozioetarako hartuko dira kontuan.

Instalazioen erabilpena

Udalaren Kirol Instalazioak entrenamendu eta txapelketarako erabiltzen dituzten talde federatu gehienek denboraldia amaitu ondoren, erabiltzaileeri ondoko hau gogora arazi nahi die Kirol Zerbitzuak, entrenamenduen hurrengo denboraldia hasi bitartean, ordu libreak aurkitzeko aukerak askoz ere handiagoak direla bai kantzak okupatu edo alokatzeko.

Udako ordutegia

Uztailaren 1etik aurrera, udalaren kirol instalazioetan udako ordutegia egongo da.

Kiroldegian, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia. Igerileku, berriz, 7:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:30era eta

sauna 9:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Larunbatetan eta jai egunetan, kiroldegia eta igerilekua 9:00etatik 13:00etara. Sauna itxia egongo da. Igan-dean kiroldegia itxia egongo da.

Kirol guneari dagokionez, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:00etara egongo da irekia, larunbatean goizez egongo da 9:00etatik 13:00etara eta igandeetan itxia dago.

Buruntzaldeako Kirol Instalazioak

Udalaren Kirol Instalazioen erabiltzaileei, ondoko hau gogoratzen diegu: Abonua Buruntzaldeako edozein Udalaren Kirol Instalazio, edozein momentutan erabiltzeko bidea ematen duela, gune bakoitzeko arau eta egutegia errespetatuaz.

Era berean, jakin arazten da, Urnietako kirol instalazioak erabiltzeko derrigorrezkoa izango dela, bazkide txartelaz gain, taktiletarako kandidua eramatea.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxari@takun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@takun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info





Maiatzatik Irailera
gauero* zabalik

* igandea eta astelehena ezik

GOIEGI

Jatetxea - Restaurante



JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

Asteko menu berezia ikusteko:
www.goiegi.com



SAN PEDRO JAI ALAITSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!



Bila bazabiltza, hementxe duzu

gure BETIKO kafea



*Erabateko gutizia aurkituko duzue
gure produktuetan!*



**GURE
KALITATEA
DASTATU**

Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA










JAIETAN ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU!



 Aldaz Hertz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

-  inplanteak eta hortz fijoak egun batean
-  ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
-  "invisalign" ortodontzi ikusezina
-  pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
-  interesik gabeko finantziazioa 12 hilabete arte

RPS 25/06

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

943 366 377

Ola kalea, 10

San Bartolome, 22

Lasarte-Oria 20160

Elgoibar 20870

www.dentalaldaz.com

